

Kontrataziorako laguntzak arautzeko oinarriak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko toki ekintzetarako ematen dituen laguntzen deialdiaren babesean.

Gaurko egunez, Alkate jaunak, behin behineko Idazkaria naizen honen aurrean, honako dekretua eman du

268/16 DEKRETUA.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko toki ekintzetarako ematen dituen laguntzen deialdiaren babesean kontrataziorako laguntzak arautzeko oinarriari buruz ireki den espedientearen berri eman ondoren.

Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko toki ekintzetarako ematen dituen laguntzen deialdiaren babesean kontrataziorako laguntzak arautzeko oinarriak onartzea:

1. ARAUTEGI ARAUTZAILEA

.- 2016ko ekainaren 15eko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2016ko diru-laguntzen deialdia. (EHAA, 2016ko ekainaren 16koa, 114 zk.)

.- 2016ko uztailaren 26ko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez diru-laguntza ematen baitzaio Valle de Trápaga-Trapagarango udalari, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2016ko diru-laguntzen deialdiaren babesean. (EHAA, 2016ko ekainaren 16koa, 114 zk.)

.- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, (BOE, 2003ko azaroaren 18koa).

.- Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Diru-laguntzen Lege Orokorraren Arautegia (BOE, 2006ko uztailaren 25ekoa).

2.- XEDEA

Ekintza honen xedea da enpresa bilbeari erraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa edo enplegu eskatzaile gisa inskribaturiko Valle de Trápaga-Trapagarango herritarren ohiko merkatuan kontratazioak egitea, hori guztia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2016ko ekainaren 15eko Ebazpenaren babesean, zeinaren bidez 2016ko ekitaldiko enplegua sustatzeko toki ekintzentzako laguntzen deialdia argitaratzen baita.

Beraz, oinarri hauen helburua da 4. puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten langabeei lan-kontratu mugagabeak edo iraunpen zehatzekoak, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean egiteko laguntzen emakida arautzea.

Laguntza hauek jaso dezaketen kontratazioak 2016ko ekainaren 16tik hasi eta 2017ko maiatzaren 31ra egiten direnak izango dira, kontuan izanda subentzionatu ahal izateko eskatzen diren gutxienerako kontratazio-aldiak, oinarri hauen 6. puntuan ezarritako kasuetan.

3.- AURREKONTUAREN ZENBATEKOA

Laguntza hauek eratzen duten funtsak Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren 2016ko aurrekontu erabilgarritasunera mugatuta daude, helburu honetarako 241-481.03 aurrekontuko partida esleitu delarik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako finantziazioa 40.330,28 eurokoa izanik.

4.- ONURADUAK

Kontratatuko direnek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a).- Valle de Trápaga-Trapagarango erroldatuta egon beharko dira deialdia egiten den egunean, langabezian edo enplegu eskatzaile gisa inskribatuta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratazioa hasi baino lehen, eta beharrezkoa balitz, honako kolektiboetakoak izango dira: DSBEren hartzaileak, lehen enpleguaren bila dabiltzan 35 urtetik beherakoak edo kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez Lanbiden inskribatuta egon direnak.

b).- Ez da diruz lagunduko erakunde eskatzaileko enpresariaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza karguak dituztenen edo administrazio organoetako kideak direnen ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailarainoko odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuna duten gainerako aihaideak kontratatzea.

5.- ENPRESA ONURADUNAK

Laguntza hauek jaso nahi dituen edozein pertsona fisikorik edo juridikorik, dena dela bere forma juridikoa, deialdi honetan araututako baldintza guztiak bete beharko ditu, honakoak besteak beste:

a).- Legez eratuta egotea eta gutxienez honako baldintzetako bat betetzea:

- EAEn edukitzea gizarte egoitza.
- Udalerrian edo EAEn edukitzea lantegia.

b).- Gizarte Segurantzako kotizazioen eta Ogasuneko zergen ordainketan egunean egotea.

c).- Valle de Trápaga-Trapagarango udalarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea.

d).- Ez egotea zigortuta –ez penalki ez administratiboki– subentzioak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik gabe, ezta horretarako ezgaitzen duen ezelako lege-debekutan erorita egotea, sexu-arrazoiengatik bazterkeriarengatik izan litekeenean barne, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

e).- Laguntzak eman, eta bere kasuan, ordaindu ahal izateko, aldez aurretik amaituta egon beharko da Euskal Autonomia erkidegoko administrazioak eta bere organismo autonomoek edo Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak berak eman dituzten izaera bereko

laguntzen edo subentzioen barruan laguntza itzultzeko edo zigortzeko hasitako edozein prozedura.

Honakoak ezin dira laguntza horien onuradun izan:

.- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan jasotako inguruabarretako batean erortzen diren enpresa edo erakunde eskatzaileak.

.- Administrazio Publikoak, sozietate publikoak eta horiekin lotutako edo mendeko edozein erakunde.

.- Enplegurako Zentro Bereziak.

Erakunde onuradunek aipatu baldintzak bete beharko dituzte oinarri hauek arautzen dituzten laguntza-proiektuan parte hartzen ari diren denbora guztian zehar.

6.- KONTRATAZIO MOTA

Subentzionatu daitezkeen kontratuen gutxienerako iraupena 3 hilabetekoa izango da eta gehienez subentzionatu daitezkeen aldia 6 hilabetekoa izango da kontratu bakoitzeko, gutxienez lanaldiaren %50 izango dutelarik, 8. puntuaren arabera, modalitate guztietan, prestakuntza- eta ikaste-kontratuaren kasuan izan ezik.

Kontratazioak edo kontratazioek enpleguaren sorkuntza garbia suposatuko du, kontraturikoak sartu baino 3 hilabete lehenago enpresan zegoen plantilla osoaren batez bestekoari dagokionean.

Kasuan kasuan eskatutako edo subentzionaturiko gutxienerako denbora baino lehenago iraingitzen badira lan-kontratuak, itzuli egin beharko da jasotako diru-laguntza, erakunde kontratatzailearen gogotik at dauden arazoiengatik denean izan ezik, kasu horretan diru-laguntza gutxitu egingo delarik lan-kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan. Inguruabar hori jakinarazi egin beharko da.

Azken kasu horretan, langilea beste langile batekin ordeztu ahal izango da kontratazio kontsekutiboaren bidez edo baja gertatu zen hurrengo hamabost egunen barruan, beti ere lehenago kontratatu den langilearen baldintza berdinetan.

Subentzionaturiko langilearen ordezkapenaren jakinarazpenarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

.- Ordeztu den langilearen Gizarte Segurantzako baja.

.- Ordezkoaren Gizarte Segurantzako alta.

.- Ordezkoa kontratatu zen hilabeteari dagokion nomina.

.- Ordezkoaren NANA.

.- Ordezkoaren lan-kontratua.

.- Ordezkoari buruz Lanbidek emandako inskripzio-aldien eta lan egoeraren txostena eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako afiliatu baten Lan-Bizitzaren txostena.

.- Beste administrazio batzuetatik eta erakunde publiko zein pribatuetatik helburu bererako jaso diren subentzio eta laguntzen berri ematea.

.- Behar bezala justifikatzea diru-laguntza eta haren erabilera.

.-, Egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiliko direla bermatzeko, eska daitezkeen agiri kontableak edukitzea

.- Jasotako funtsen erabilera justifikatzeko agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-atazetarako erabili ahal izateko.

.- Jasotako funtsak itzultzea azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean ezarritako kasuetan eta moduan.

7.- BALORAZIORAKO IRIZPIDEAK

Diru-laguntzarako aurkeztutako kontratu bakoitza honako irizpideen arabera baloratuko da, puntuazio gehiagotik gutxiagora doan zerrenda bat egiteko.

BALORAZIORAKO IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
Kontrataturiko langileen ezaugarriak:	
- 55 urtetik gorakoak	50
- Emakumea	40
- 45 - 54 urtekoak	30
- Kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe edo enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon diren iraupen luzeko langabeak.	20
- Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) hartzaile titularrak	15
- Lehen enpleguaren bila dabilzan 35 urtetik beherakoak	15
Lanaldi mota:	
- Osoa	30
- Partziala	10
Kontratuaren iraupena:	
- Mugagabea	30
- 12 hilabete edo gehiago	10

8.- ENPLEGURAKO DIRU-LAGUNTZEN TIPOLOGÍA

8.1.- Gehienezko laguntza 3.000 eurokoa izango da lanaldi osoko hiruhilabeteko iraupeneko kontratu bakoitzarentzat eta 6.000 eurokoa, sei edo hilabete gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzarentzat.

Kontratazioa lanaldi partzialekoa bada edo hiru eta sei hilabeteko iraupena badu, diru-laguntza proportzionala izango da lanaldi edota lan egindako denborarekiko.

Laguntzaren azken zenbatekoa ez da soldata-gastuen %75 baino gehiagokoa izango, kontratu amaierako kalteordainak eta kontraturiko langilearengatik enpresak Gizarte Segurantzari ordaindutakoa gastuak barne.

8.2.- Honako kolektiboetako pertsonak kontratatzen badira:

- DSBEren hartzaile titularrak.
- Lehen enpleguaren bila dabiltzan 35 urtetik beherakoak.
- Kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe edo enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon diren iraupen luzeko langabeak.

Laguntzaren gehienezko zenbatekoa 9.000 eurokoa izango da sei hilabete edo gehiagoko iraupena duen lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzarentzat.

Kontratazioa lanaldi partzialekoa bada edo hiru eta sei hilabeteko iraupena badu, diru-laguntza proportzionala izango da lanaldi edota lan egindako denborarekiko.

Laguntzaren azken zenbatekoa ez da soldata eta Gizarte Segurantzako kostuen %100 baino gehiagokoa izango, kontratu amaierako kalteordainak barne.

Subentzionatzen diren kontratazioen bidez kontratatzen diren langabeetatik, gutxienez %40 emakumeak izango dira, kontratazioarako laguntzen proiektuan aurreikusitako kontratazio guztiak kontuan izanda. Halaber, gutxienez %15a 55 urtetik gorakoak izango dira, kontuan izanda enplegua sustatzeko aipatutako deialdiaren bidez Lanbidek subentzionatzen dituen jarduketa guztiak.

Kontratazioak diru-laguntza amaitzen den datatik aurrera luzatu daitezke, baina geroagoko datei dagozkien kostuak ezin izango dira subentzionatu.

9.- ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA

Eskaerak Valle de Trápaga-Trapagarango Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Lauaxeta plaza z.g. 48510 Valle de Trápaga-Trapagaran). Eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzen dela suposatuko du.

Oinarri hauek eskuragarri egongo dira www.trapagaran.net webgunean, Valle de Trápaga-Trapagarango Erregistro Orokorrean eta Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian.

10.- AGINDUZKO AGIRIAK

Laguntza-eskaerak oinarri hauen eranskinetan dagoen berariazko eskaera-eredu batean aurkeztuko dira, honako agiriekin batera:

10.1.- Enpresa/erakunde eskatzaileei buruzko agiriak:

- a).- Eskatzailea pertsona fisikoa bada: Nortasun Agiri Nazionalaren /AIZ eta IFZ.
- b).- Pertsona juridikoak direnean:
 - Identifikazio Fiskalerako Txartelaren kopia, NANrekin batera eta eskatzailea edo eskaeraren sinatzailea ordezkatzeko ahalmena.
 - IZF-ren fotokopia eta enpresa edo erakundearen eratze-ekrituren fotokopia, ondorengo aldatetekin eta dagozkien erregistroetako inskripzioa. Berezko nortasun juridikorik gabeko Sozietate Zibilen kasuan kontratu pribatua aurkeztuko da, dagokion Ogasunak zigilatua.

- c).- Jarduera Ekonomikoen Zergako altaren ziurtagiria, dagokion Ogasunak emana eta aipatu zergaren azken ordainagiriaren fotokopia, erakundeak hari lotutako jarduerak burutzen dituenean. Ordainketatik salbu badago, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da.
- d).- Enpresa edo erakundearen Gizarte Segurantzako kopia.
- e).- Lantegia udalerrian edo EAEn duela egiaztatzen duen agiria.
- f).- Honakoei buruzko erantzukizunpeko adierazpen original bakarra (eskaera-ereduaren I eranskina):
- Diru-laguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo zigor-prozeduretan sartuta ez egotearena.
 - Subentzio eta diru-laguntza publikoak galtzeko aukerarekin zigortua ez egotea, ez penalki ez administratiboki, ezta laguntzak jasotzeko desgaituko luketen lege-debeku batean ere ez egotea, sexu arrazoiengatik bazterkeriagatik gertatu litezkeenetan barne, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.
 - Ordezkatzen duen enpresak eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta onuradun izatea galeraziko liokeen Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasota dauden ezelako inguruabarretan ez dagoela.
- g).- Dagokion Ogasuneko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratuak, betebeharretan egunean egoteari buruzkoak.
- h).- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria, diruz laguntzeko eskatu den kontratazioa hasi baino 3 hilabete lehenago zegoen batez besteko plantilla osoari buruzkoa.
- i).- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria diruz laguntzeko eskatu den kontratazioa hasi zen egunean zegoen batez besteko plantilla osoari buruzkoa.
- j).- Hirugarrenen altaren agiria, dagokion erakunde eskatzaileak eta bankuak sinatua eta zigilatua.
- Ofizioz egiaztatuko da erakunde eskatzailea egunean dagoela Valle de Trápaga-Trapagarango Udalarekin zerga betebeharreri dagokienean.
- 9.2.- Kontratatu diren pertsonen eta kontratazioari buruzko agiria:
- a).- Kontratatu diren NAN/AIZ-en fotokopia.
- b).- Lanbiden alta eman eta eskaera berri izanaren agiri eguneratua.
- c).- Lanbideren ziurtagiri eguneratua, inskripzio-aldiei eta langabezian egoteari buruzkoa.
- d).- Lan-bizitza eguneratua.
- e).- Lanbideren ziurtagiria DSBE-ren hartzailea izatearen baldintza betetzeari buruzkoa, hala badagokio.
- f).- Egingo den kontratuaren datuak jasotzen dituen agiria, berriaz jarrita egongo direlarik haren iraupena eta lanaldia, aplikatuko den konbenioa eta soldataren zein Gizarte Segurantzaren kostuak.
- g).- Subentzionatuko den lan-kontratuaren kopia, erakunde eskudunak zigilatua.
- h).- Kontratatu den pertsonaren Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko altaren kopia.

i).- Honakoei buruzko erantzukizunpeko adierazpen original bakarra (eskaera-ereduaren I eranskina):

- Laguntza eskatzen deneko kontratazioko pertsonak ez direla enpresariaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza karguak dituztenen edo administrazio organoetako kideak direnen ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailarainoko odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak.
- Laguntzak eskatzen direnako kontratazioa/k enplegu sorrera garbia suposatzen dutela diruz laguntzen den kontratuko pertsona/k sartu baino hiru hilabete lehenago enpresan zegoen batez besteko plantilla osoarekiko.
- Konpromisoa hartzen dutela kontratazioa/k aipatu eskaeran jasotako terminoetan burutzeko eta indarreko lan arautegia zein aplikatu beharreko lan arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeko.
- Ez duela eskatu ez eskuratu beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batetik subentzio edo laguntza pribaturik kontzeptu edo helburu bererako. (Hala ez balitz, aitorten bat aurkeztu beharko du eskuratutako edo eskatutako laguntzen zerrendarekin).
- Ezelako arrazoiengatik ez dela gainfinantzaiziorik existitzen edo existituko laguntzak eskatzen diren kontratazioarentzat /kontratazioentzat.

Toki Administrazio honek ofizioz egiaztatuko du kontratatu den pertsona udal honetan erroldatuta dagoela deialdi hau egiten den egunean.

11.- AURKEZTEKO EPEA ETA EBAZTEKO EPEA

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, 2017ko martxoaren 31n amaituko delarik. Dena den inola ere ez dira subentzionatuko 2017ko maiatzaren 31tik haratago doazen kontratazio-aldiak, ezta ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskaerak.

Eskaerak ez baleude behar bezala beteta edo ez badituzte erantsita aginduzko agiri guztiak, erakunde eskatzaileari eskatuko litzaioke, hamar laneguneko epearen barruan akatsak zuzentzeko edo agiriak eransteko, ohartaraziz, hala egin ezean, eskaeran atzera egiten duela ulertuko dela eta eskaera horri buruzko berariazko ebazpena emango da eta dagokion jakinarazpena.

Ebazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da eskaerak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita, epe hori ez betetzeko arrazoi justifikaturik badago izan ezik, orduan ahalik eta eperik laburrenean ebatziko litzatekeelarik.

Laguntzak jasoko dituzten kontratazioak 2016ko ekainaren 16tik aurrera hasita egon litezke, baina diruz lagundu daitekeen aldia ez da 2017ko maiatzaren 31tik aurrerakoa izango, kontuan harturik oinarri hauetako 6. puntuan subentzionatzeko eskatzen diren gutxieneko kontratazio-aldiak.

12.- PROZEDURA

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza Sailari dagokio, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziaren bidez, oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa.

Laguntzak emateko edo ukatzeko erabakia hartu baino lehen proposamen teknikoak hartuko dira kontuan.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63 artikulua arabera, itxaron-zerrenda bat sortuko da, lortutako puntuazioaren arabera ordenatua, honako oinarrietan ezarritako baldintzak bete baina deialdirako finkaturiko kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik onartuak izan ez diren eskaera guztiekin, gerakinik egongo balitz, enpresa onuradunek uko egiteagatik diru-laguntzari, edo ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, organo emaileak erabakiko balu beste deialdi bat egin gabe, diru-laguntza ematea aipatu itxaron-zerrendako lehenengo eskatzaileari eta hurrengoei, puntuazioaren arabera, liberaturiko kreditua agortu arte.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka izango da.

Hala ere, deialdirako esleituriko kreditua nahikoa izango balitz oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, salbuetsi egingo da haien arteko lehentasun-irizpidea eta denak izango dira onuradunak.

Aitzitik esleitutako kreditua nahikoa ez balitz, diru-laguntzen emakida aurkeztutako eskaerak erkatuz egingo da, euren artean lehentasuna ezartzeko, 7. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideen arabera, aipatu irizpideak aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenei esleituz.

Berdinketa gertatuz gero eta puntuazio berdina lortu duten eskaera guztiei erantzuteko aurrekontu-krediturik ez balego, leheneste aldera, balorazio-irizpideetan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan, honako ordenaren arabera:

1. 55 urtetik gorakoa
2. Emakumea
3. 45 - 54 urtekoa
4. DSBEn hartzailea
5. Iraupen luzeko langabea
6. Kontratu mugagabea
7. Lanaldi osoa
8. 12 hilabete edo gehiagoko kontratua
9. 6tik 12 hilabeterako kontratua

Berdinketak jarraituko balu, lehentasuna izango du eskaera lehenengo aurkeztu duenak, Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztu zen data eta orduaren arabera.

Saldo erabilgarria ez bada nahikoa kreditu erabilgarria agortzen duen diru-laguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua aplikatuko zaio horri.

Lortutako puntuazioaren arabera ezarritako lehentasun-ordena jarraituz emango da laguntza. Eskaera bakoitzari dagokion lehentasun-ordena ezarrita geratuko da eskaerak erantsita daukanean oinarri hauetan eskatzen diren agiri guztiak.

Eskaerak ez baleude behar bezala beteta edo ez badituzte erantsita aginduzko agiri guztiak, erakunde eskatzaileari eskatuko litzaioke, hamar laneguneko epearen barruan akatsak zuzentzeko edo agiriak eransteke, ohartaraziz, hala egin ezean, eskaeran atzera egiten duela ulertuko dela eta eskaera horri buruzko berariazko ebazpena emango da eta dagokion jakinarazpena.

Prozedura bakoitzean emango den gehienezko zenbatekoa aurrekontuan erabil daitekeen gehiena izango da, aplikatzen ez diren diru-kopuruak ondorengo ebazpenetara eramango direlarik aurrekontua agortu arte. Ebazpen berean organo emaileak berariaz erabakiko du hurrengo ebazpenera eramango den zenbatekoa.

13.- PROZEDURAREN INSTRUKZIORAKO ETA EBAZPENERAKO ORGANO ESKUDUNA.

Diru-laguntzak emateko organo eskuduna Valle de Trápaga-Trapagarango alkatetza izango da edo hark esku emandako organoa, aldez aurretik Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziak aurkeztutako eskaerei buruz egingo duen txostena ikusita, eta oinarri hauetan aipatutako baremazio-irizpideei jarraiki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emakumeei eta 55 urtetik gorakoei buruz eskatzen dituen gutxieneko portzentajeak betez.

14.- ERREKURTSOAK

Emakidaren ebazpenak amaiera ematen dio bide administratiboari, haren aurka berraztertzeke errekurtsoa jarri daitekeelarik hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontatzen hasita, ebazpena eman zuen organo beraren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke 2 hilabeteko epean eskualde honetako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian.

15.- DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Kontratu bakoitzagatik subentzionaturiko kopuruaren %100 ordainduko da erakundeak/ enpresa onuradunak oinarri hauen eranskinetan dagoen justifikazio-ereduarekin batera honako agiriak aurkeztean:

- a).- Soldaten ordainketaren frogagiria eta eskatutako gutxieneko aldian diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia.
- b).- Dagokion Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratuak, betebeharretan egunean egoteari buruzkoak.
- c).- Diruz laguntzeko eskatzen diren gutxieneko kontratazio aldien TC1 eta TC2.
- d).- Erantzukizunpeko adierazpen original bakarra sinatuta (eskaera-ereduaren II. eranskina):

Aipatu agiriak Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, gehienez bi hilabeteko epean subentzionaturiko ekintza amaitzen denetik, inola ez delarik 2017ko uztailaren 15a baino beranduago izango.

16.- BESTE LAGUNTZA EDO SUBENTZIO BATZUEKIN BAT ETORTZEA.

Laguntzak bateragarriak izango dira kontzeptu eta helburu beragatik beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotzen den beste edozein subentzio edo laguntzarekin, Gizarte Segurantzako hobariak izan ezik.

17.- DIRU-LAGUNTZA ALDATZEA

Laguntzak emateko kontuan izan diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero emandako subentzioa ere aldatuko litzateke, beti ere diru-laguntza emateko eskakizunak babesten badira.

18.- EZ- BETETZEAK

Oro har, enpresak edo hark kontraturiko pertsonak ez badu betetzen edozein eskakizun, eta horrek Lanbidek eman eta udalak jasotzen duen subentzioa gutxitzea suposatzen badu, laguntzaren hartzaileari jasanaraziko zaio dagokion murrizketa proportzionala edo kasua bada, jasotako kopuruen itzulketara, dagozkion legezko interesekin.

19.- DATU PERTSONALEN BABESA.

Diru-laguntza eskaera aurkeztean, erakunde eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta aitortzen du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta haren termino guztiak zeharo onartzen dituela.

Halaber adierazten du eskaeran jasotako datu pertsonalak bere adostasunarekin jaso direla eta onartu egiten duela aipatu datuak automatikoki tratatzea eta Udal honek behar bezala baimendutako fitxategi desberdinetan sartzea eta baimena ematen duela aipatu datuak udalak baino ez kudeatzeko, beste Herri Administrazio eta organismo batzuei laga edo jakinarazi dakizkiekeelarik, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuok eskuratzeko, zuzentzeko, deusezteko eta aurkatzeko eskubideak erabil ditzakete, legean aurreikusi bezala, idazki bat bidaliz Valle de Trápaga-Trapagarango Udalera, Lauaxeta plaza z.g. 48510 Valle de Trápaga-Trapagaran.

20.- DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA.

BAOn, Valle de Trápaga-Trapagarango udaleko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko da aipatu aldian emandako diru-laguntzen zerrenda, pertsona/enpresa onuradunak aipatuz eta eman zaien zenbatekoa.

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN BARRUAN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN ESKAERA 2016

LEGEZKO ORDEZKARIA ETA ERAKUNDE ESKATZAILEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

Izen-abizenak:	NAN:
Honakoa ordezkatur: (Enpresa edo erakundearen izen soziala)	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

--	--

Enpresa edo erakundearen helbide soziala:		
Kalea eta zk.:		
Udalerria:	P.K.:	Telefonoa:
E-maila:	Faxa:	http://
Jakinarazpenetarako helbide osoa: (Aurrekoa ez beste bat denean baino ez bete)		
Kalea eta zk.:		
Udalerria:	P.K.:	Telefonoa:
E-mail:	Fax:	http://

Enpresaren jarduera:	
J.E.Z. nagusia:	Altaren data:
Deskribapena:	

DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DU VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANEN ERROLDATURIKO HONAKO PERTSONA HAU, LANGABEZIAN DAGOENA, KONTRATATZEKO: (Kontraturiko pertsona bakoitzeko bat bete)

Izen-abizenak:	NAN:
Lanpostua: (Bat etorri beharko da lan-kontratuan jasota dagoenarekin)	Jaiotze-data:

--	--

X bat jarri kontraturiko pertsona honako kolektiboetako denean:

- Emakumea ○ Gizona
- 55 urtetik gorako langabea
- BAI ○ EZ
- Dirusarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) titular hartzailea (RGI)
- BAI ○ EZ
- Iraupen luzeko langabea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon dena kontratazioa baino 18 hilabete lehenago eta gutxienez 12 hilabetez langabezian egon dena)
- BAI ○ EZ
- 35 urtetik beherakoa, bere lehen enplegua bila dabilena
- BAI ○ EZ
- 45 eta 54 urte bitarteko langabea
- BAI ○ EZ

Subentzionaturiko kontratuko pertsonak kontratatu baino 3 hilabete lehenago zegoen batez besteko plantilla:

.....

Kontratuaren iraupena:

- Mugagabea ○ Iraupen mugatua, hilabete

Hasiera data.....

Kontratu mota:

- Lanaldi osoa ○ Lanaldi partziala %

Gutxi gorabeherako hileko soldata gordina

ERANTSITAKO AGIRIAK:

.- ENPRESARI/ ERAKUNDE ESKATZAILEARI BURUZKOAK:

- a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada: NAN/AIZ eta IFZ.
- b) Pertsona juridikoak direnean:
 - o Identifikazio Fiskalerako Txartelaren kopia, NANarekin batera eta eskatzailearen edo eskaera sinatzen duenaren ordezkapen-ahalmena.
 - o IFKren fotokopia eta enpresa edo erakundearen eraketaren eskriturak, ondorengo aldaketekin eta dagozkion erregistroetako inskripzioarekin.
 - o Berezko izaera juridikorik gabeko Sozietate Zibilen kasuan, dagokion Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztuko da.
- c) Jarduera Ekonomikoen Zergaren altaren ziurtagiria, dagokion Ogasunak emana eta aipatu zergaren azken ordainagiriaren fotokopia, erakundeak zerga horren mendeko jarduerak burutzen dituenean. Ordaintzetik salbu egongo balitz, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztuko du.
- d) Enpresa edo erakundearen Gizarte Segurantzako altaren kopia.
- e) Lantokia herrian edo EAEn kokatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- f) Dagokion Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren ziurtagiri eguneratuak, betebeharretan egunean egoteari buruzkoak.
- g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako ziurtagiria, diruz laguntzeko eskatu den kontratazioa hasi baino 3 hilabete lehenago zegoen batez besteko plantilla osoari buruzkoa.
- h) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako ziurtagiria diruz laguntzeko eskatu den kontratazioa hasi zen egunean zegoen batez besteko plantilla osoari buruzkoa.
- i) Hirugarrenen altaren agiria, dagokion erakunde eskatzaileak eta bankuak sinatua eta zigilatua.
- j) Erantzukizunpeko adierazpen/ak, sinatuta (Eskaera ereduaren I eranskina)

.- KONTRATUKO DIREN PERTSONEI ETA KONTRATAZIOARI BURUZKOAK:

- a) Kontratutako den pertsonaren NAN/AIZ-ren fotokopia.
- b) Lanbideren alta eta eskaera berritzearen agiri eguneratua.
- c) Lanbideren ziurtagiri eguneratua, inskripzio-aldiei eta langabe egoeran egoteari buruzkoa (bitartekotza bidezko alta).
- d) Lan Bizitza eguneratua.
- e) Lanbideren ziurtagiria, DSBE-ren hartzaile baldintza betetzeari buruzkoa, hala badagokio.
- f) Egingo den kontratuaren datuak jasotzen dituen agiria, berariaz jarrita egongo direlarik haren iraupena eta lanaldia, aplikatuko den konbenioa eta soldataren zein Gizarte Segurantzaren kostuak.

- g) Subentzionatuko den lan-kontratuaren kopia, erakunde eskudunak zigilatua.
- h) Kontratatu den pertsonaren Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko altaren kopia.
- i) Erantzukizunpeko adierazpen/ak, sinatuta (Eskaera ereduaren I eranskina)

Valle de Trápaga-Trapagararen, 20.....koren(e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA:

Eskaerak eta gainerako agiriak Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Lauaxeta plaza z.g. – 48510 Valle de Trápaga-Trapagaran).

Epemuga 2017ko martxoaren 31 izango da.

**KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN ESKAERAREN I ERANSKINA:
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

(ENPRESA/ERAKUNDEKO LEGEZKO ORDEZKARI BAKOITZEKO BAT ENTREGATU BEHAR DA)

Izen-abizenak:	NAN:
Ordezkatzen duen enpresa/erakundea: (Izen soziala)	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

HONAKOA ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN

- o Egiazkoak direla eskaera honetan agertzen diren datu guztiak eta erantsi diren agiriak ere bai.
- o Deialdi honetako oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak ezagutu eta onartzen dituela.
- o Ordezkatzen duen enpresa ez dagoela diru-laguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo zigor-prozeduretan sartuta ez egotearena.

- Ordezkatzen duen enpresa ez dagoela zigortuta, ez penalki ez administratiboki, subentzio eta diru-laguntza publikoak galtzeko aukerarekin, ezta laguntzak jasotzeko desgaituko lukeen lege-debeku batean sartuta, sexu arrazoiengatik bazterkeriagatik gertatu litezkeenetan barne, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.
- Ordezkatzen duen enpresak eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta onuradun izatea galeraziko liokeen Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan jasota dauden ezelako inguruabarretan ez dagoela.
- Ordezkatzen duen enpresak ez duela eskatu ez eskuratu beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batetik subentzio edo laguntza pribaturik kontzeptu edo helburu bererako. (Hala ez balitz, aitorpen bat aurkeztu beharko du eskuratutako edo eskatutako laguntzen zerrendarekin).
- Ezelako arrazoiengatik ez dela gainfinantzaiziorik existitzen edo existituko laguntzak eskatzen diren kontratazioarentzat /kontratazioentzat.
- Konpromisoa hartzen du Udalari idatziz informatzeko eta aitortzeko adierazpen honetako edozein konturekin zerikusia duen edozein gorabeheraz.
- Laguntza eskatzen deneko kontratazioko pertsonak ez direla enpresariaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza karguak dituztenen edo administrazio organoetako kideak direnen ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailarainoko odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak.
- Laguntzak eskatzen direneko kontratazioa/k enplegu sorrera garbia suposatzen dutela diruz laguntzen den kontratuko pertsona/k sartu baino hiru hilabete lehenago enpresan zegoen batez besteko plantilla osoarekiko.
- Konpromisoa hartzen dutela kontratazioa/k aipatu eskaeran jasotako terminoetan burutzeko eta indarreko lan arautegia zein aplikatu beharreko lan arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeko.

Valle de Trápaga-Trapagaran, 20.....koren(e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua

HIRUGARRENAREN ALTA

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK				
NAN	/	AIZ	/	IFZ
.....				
Izen-abizenak	/	Izen	Soziala	

.....
Helbidea
.....
Posta kodea Herria
Probintzia..... Herrialdea

BANKUKO DATUAK

IBAN _____
—
Titularra
.....
Oharra: Hirugarren interesduna izan beharko da bankuko kontuaren titularra.

Bankuaren adostasuna

Zigilua eta baimenduriko sinadura

Hirugarren interesdunaren adostasuna

Sello y firma

Udalaren O.E.

Zigilua eta baimenduriko sinadura

Data.....

KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA, ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZENTZEKO 2016KO LAGUNTZA- DEIALDIAREN BABESEAN

Izen-abizenak:	NAN:
----------------	------

Ordezkatzen duen enpresa/erakundea: (Izen soziala)	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

LANGILE HONEN KONTRATAZIO SUBENTZIONATUA

Izen-abizenak:	NAN:
----------------	------

ENPRESAK EDO ERAKUNDEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- a) Soldaten ordainketaren frogagiria eta eskatutako gutxieneko aldian diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia.
- b) Dagokion Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratuak, betebeharretan egunean egoteari buruzkoak.
- c) Diruz laguntzeko eskatzen diren gutxieneko kontratazio aldien TC1 eta TC2.
- d) Erantzukizunpeko adierazpen original bakarra sinatuta (eskaera-ereduaren II. eranskina)

Valle de Trápaga-Trapagaran, 20.....koren(e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua

(Izaera juridiko propiorik ez duten erakundeen kasuan, erakundea osatzen duten pertsona guztien sinadura behar da, sinaduraren azpian haien izen-abizenak letra larritan idatziko direlarik).

JUSTIFIKAZIOAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Justifikazioak eta gainerako agiriak Valle de Trápaga-Trapagarango Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Lauaxeta plaza, z.g. – 48510 Valle de Trápaga-Trapagaran), bi hilabeteko epean subentzionaturiko ekintza amaitzen denetik hasita, sekula ere ez delarik izango 2017ko uztailaren 15 baino beranduago.

**KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOAREN II. ERANSKINA:
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

(ENPRESA/ERAKUNDEKO LEGEZKO ORDEZKARI BAKOITZEKO BAT ENTREGATU BEHAR DA)

Izen-abizenak:	NAN:
Ordezkatzen duen enpresa/erakundea: (Izen soziala)	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

HONAKOA ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN

- Egiazkoak direla eskaera honetan agertzen diren datu guztiak eta erantsi diren agiriak ere bai.
- Deialdi honetako oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak ezagutu eta onartzen dituela.
- Ordezkatzen duen enpresa ez dagoela diru-laguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo zigor-prozeduretan sartuta ez egotearena.
- Ordezkatzen duen enpresa ez dagoela zigortuta, ez penalki ez administratiboki, subentzio eta diru-laguntza publikoak galtzeko aukerarekin, ezta laguntzak jasotzeko desgaituko lukeen lege-debeku batean sartuta, sexu arrazoiengatik bazterkeriagatik gertatu litezkeenetan barne, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.
- Ordezkatzen duen enpresak eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta onuradun izatea galeraziko liokeen Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasota dauden ezelako inguruabarretan ez dagoela.
- Ordezkatzen duen enpresak ez duela eskatu ez eskuratu beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batetik subentzio edo laguntza pribaturik kontzeptu edo helburu bererako. (Hala ez balitz, aitorpen bat aurkeztu beharko du eskuratutako edo eskatutako laguntzen zerrendarekin).
- Ezelako arrazoiengatik ez dela gainfinantzaiziorik existitzen edo existituko laguntzak eskatzen diren kontratazioarentzat /kontratazioentzat.
- Konpromisoa hartzen du Udalari idatziz informatzeko eta aitortzeko adierazpen honetako edozein konturekin zerikusia duen edozein gorabeheraz.
- Laguntza eskatzen deneko kontratazioko pertsonak ez direla enpresariaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza karguak dituztenen edo administrazio organoetako kideak direnen ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailarainoko odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak.
- Laguntzak eskatzen direneko kontratazioa/k enplegu sorrera garbia suposatzen dutela diruz laguntzen den kontratuko pertsona/k sartu baino hiru hilabete lehenago enpresan zegoen batez besteko plantilla osoarekiko.
- Konpromisoa hartzen dutela kontratazioa/k aipatu eskaeran jasotako terminoetan burutzeko eta indarreko lan arautegia zein aplikatu beharreko lan arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeko.

Valle de Trápaga-Trapagaran, 20.....koren(e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua

BIGARRENA.- Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hamaseiko abenduaren hamabian.

ALKATEA

Nire aurrean
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA